


# KROKODILOA

Fedor Mikhailovitx Dostoievski



Itzulpena:  
Josu Zabaleta

 BOOKTEGI



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

FEDOR MIKHAILOVITX DOSTOIEVSKI

# krokodiloa

Gertaera edo pasadizo harrigarri bat passagean, adin bateko gizon itxuroso bat Passageko krokodiloak oso-osorik eta bizirik irentsi eta horretatik zer ondorio etorri ziren kontatzen duen egiazko kontaera.

Itzulpena: Josu Zabaleta

Ohe, Lambert! Ou est Lambert?  
As-tu vu Lambert?

I

Mila zortziehun eta hirurogeita bost honetako urtarrilaren hamahiruko hamabiak eta erdietan, Elena Ivanovna, Ivan Mateitx, nire adiskide jakintsu, lankide eta partez urrutiko ahaidearen emazteari Passagean prezio jakin bat ordainduta ikusgai zegoen krokodiloa ikusteko gogo sartu zitzaion. Atzerrirako bidaia baterako billetea dagoeneko patrikan zuela (gaixotasunagatik baino areago jakin-minagatik) eta horrenbestez lanpostuan dagoeneko lanetik oporretan jotzen zela eta, beraz, goiz hartan Ivan Mateitx guztiz libre zegoenez, emaztearen ezin eutsizko apeta ez eragotzi ez ezik, berari ere piztu egin zitzaion jakin-mina.

–Idea bikaina –esan zuen, pozarren– goazen krokodilo hori ikustera! Europarantz abiatzeko honetan, ez da gauza txarra izango han bizi diren indigenak hemendik bertatik ezagutzen hastea –eta hitz horiek esanik, emazteari besotik heldu eta instantean atera zen harekin Passengerantz.

Ni neu, nire ohiturari jarraituz, haiekin batera joan nintzen, etxeko laguna nintzenez. Ordu arte inoiz ikusi gabea nuen Ivan Matveitx niretzat hain gogoangarria den goiz hartan bezain aldarte onean; zein egia den ez dugula aurrez jakiten zer dakarkigun patuak!

Passagean sartuz batera hasi zen eraikinaren aberastasuna miresten, eta oraindik aspaldi ez zela hiriburura ekarritako munstroa erakusten zuten lokalera iritsi ginelarik, berak ordaindu nahi izan zizkion krokodilo-jabeari nire billetearen hogeita bost kopekak, ordu arte inoiz gertatu ez zitzaion gauza, hain zuzen. Lokal txiki hartan sartu ginenean, krokodiloaz gainera, kakatua izeneko mota arrotzeko papagaiak ere bazirela ohartu ginen, eta haiez gainera baita tximino talde bat ere, hormako sakonune batean zegoen armairu berezi batean. Sarrera ondo-ondoan, ezkerreko horman, bainu-ontzi baten gisako zinkezko aska handi bat zegoen, burdinazko sare sendo batez estalia, eta haren barrenean arra erdi bat ur. Putzu mehe hartan itzeleko krokodilo bat zeukaten, enbor bat bailitzan etzanda, zinez zirkinik ere egiten ez zuela, eta, itxuraz behintzat, atzerritarrentzat hain hezea eta abegi txarrekoa den gure klima honen ondorioz bere ahalmen guztiak galdurik. Hasieran munstro hark inori ez zigun aparteko jakin-minik eragin.

–Hau al zen krokodiloa? –esan zuen Elena Ivanovnak desilusio-doinu batez abesten bezala–; beste era batekoa... izango zela uste nuen nik!

Diamantezkoa izango zela usteko zuen hark, nonbait. Guregana azaldu zen aleman bat, nagusia, krokodiloaren jabea, harro-harro zegokigun begira.

–Badu harro egoteko arrazoia –xuxurlatu zidan Ivan Matveitxek–, ongi baitaki bera dela bakarra Errusia osoan krokodilo bat erakusten.

Oharpen guztiz zentzugabe hori ere Ivan Matveitx gainezka eginda zeukan neurritz goitiko aldarte onari egotzi nion, zeharo inbidiosoa izaten baitzen beste batzuetan.

–Zure krokodilo hori ez dago bizirik –esan zuen berriro Elena Ivanovnak, jabearen zakartasunak mindurik, eta irribarre graziaz bete bat eginez mintzatu zitzaion, gisagabe hura erakartzeko, emakumeek hain berea duten amarruaz baliatuz.

–A, ez, madam –erantzun zuen hark errusiera urratu batez eta segituan, kuxtaren estalkiaren erdia jasorik, makila batez kokokriloa buruan zirikatzen hasi zen.

Munstro maltzur hark hankak eta isatsa zertxobait mugitu, muturra jaso eta zurrunga luze baten antzeko bat egin zuen orduan, bizirik zegoelako seinaleak emateko,.

–Ea, ez haserretu, Karlchen! –esan zion alemanak amultsuki, bere harrotasunean atsegin harturik.

–A zer krokodilo nazkagarria! Izutu eta guzti egin nau –murduskatu zuen Elena Ivanovnak are lausengu-asmo handiagoz–; orain ametsetan ere agertuko zait.

–Baina ametsetan ez dizu hozka egingo, madam –ohartarazi zuen alemanak galaniaz, eta bera izan zen hitz haien zolitasunaz barre egiten lehena, baina gutako inork ez zion erantzun.

–Goazen hemendik, Semion Semionitx –jarraitu zuen esanez Elena Ivanovnak, niri bakarrik mintzatzuz–, hobe dugu tximinoak ikustera joan. Tximinoak ikaragarri gustatzen zaizkit; grazia bat dute... krokodiloak, berriz, izua ematen dit.

–Oi, ez izan beldurrik, maitea –egin zigun oihu atzetik Ivan Matveitxek, emaztearen aurrean bere bipiltasuna harro erakutsiz–. Faraoiaren erresumako biztanle logaletsu honek ez digu ezer egingo –eta askaren ondoan geratu zen. Ez hori bakarrik; bere eskularru bat harturik, krokodiloai sudurrean kilimak egiten hasi zitzaion, berriro bufada bat egitera behartzeko asmoz, geroago aitortuko zidanez. Haren jabea Elena Ivanovnari jarraituz joan zen tximinoen armairurantz, andre dama baten atzetik balihoa bezala.

Horrela bada, ezin hobeto zihoan den-dena, eta ez zegoen aurrez ezer sumatzerik. Elena Ivanovna erotzeko moduan ari zen dibertitzen tximinoekin eta bazirudien haiengan jarria zuela arreta guztia. Atsegin-oihuak egiten zituen, denbora guztian niri mintzatzuz, jabeari jaramonik egin nahi ez balio bezala, eta algaraka hasten zen tximino haien eta bere ezagun berrien eta adiskideen artean antzekotasunen bat aurkituta. Neu ere dibertitzen ari nintzen, begi bistakoa baitzen antza. Aleman jabeak ez zekien barre egin ala ez egin, eta bekozko iluna ipini zuen bukaerarako. Eta une horretantxe orro ikaragarri, naturaz gaindiko batek, esango nuke nik, inarrosi zuen bat-batean aretoa. Zer pentsatu ez nekielarik, bertan izozturik geratu nintzen hasieran; baina, Elena Ivanovna ere garrasika ari zela oharturik, laster bai laster biratu, eta zer ikusiko? Ivan Matveitx gizajoa, Jaungoiko nireal, krokodiloaren baraila izugarriek gerritik erdiz erdi harrapatuta eta airean horizontalean jasota, hankak

eroaren moduan ostikoka zituela. Unetxo bat, eta haren arrastorik ere ez zen geratu. Baina zehatz-mehatz deskribatuko dut, zeren mugitu ere gabe egon bainintzen denbora guztian eta astia izan bainuen nire aurrean gertatzen ari zen prozesu guztia beste inoiz izan dudarik gogoratzen ez naizen arreta eta ikusmin batez begitatzeko. “Zeren, Ivan Matveitxen lekuan niri gertatu izan balitzait hau dena, a zer nahigabea!” –pentsatu nuen zoritxarreko une hartan.

Baina goazen mamira. Ivan Matveitx gaixoa bere baraila izugarrietan biratu eta haren hankak bereganantz jartzen hasi zen krokodiloa, eta hankak irentsi zituen lehenik; gero, Ivan Matveitx zertxobait kanporaturik, kanpora ateratzen eta ontziaren ertzari heltzen ahalegintzen ari baitzen, berriro irentsi zuen gerria baino goragoraino. Ondoren, berriro korrok eginik, barrurago eta barrurago irentsi zuen. Horrela, Ivan Matveitx gure begien aurrean ari zen bistatik desagertzen. Azkenean, zaust tragatuz, krokodiloak osorik irentsi zuen nire adiskide jakintsua eta oraingo honetan arrastorik ere ez zuen utzi harenik. Krokodiloari azalean antzematen zitzaion, hartzen zituen formei erreparatuz, nondik ari zen igarotzen Ivan Matveitx haren barrenean. Berriro garrasi egitera nindoala, beste burla doilor bat egin nahi izan zigun zoriak: krokodiloak beste ahalegin bat egin zuen, irentsitako gauza haren tamaina izugarriak beharturik, nonbait; bere aho-zulo ikaragarri hura berriro zabaldu zuen, eta hartan, azken korrokada batean, unetxo batez azaldu zen Ivan Matveitxen burua, aurpegian desesperoa nabari zitzaiola, eta, horretan, betaurrekoak sudurretik aska-hondora erori zitzaizkion. Bazirudien gauza guztiei azken begirada bat berriro bota eta bere espirituz mundu honetako plazer guztiei azken agurra egitera baizik ez zela atera etsimenez betetako buru hura. Baina ez zuen astirik izan asmo hori burutzeko: krokodiloak ahalegin handi bat egin zuen berriro, eta instanteko desagertu zen burua, oraingo honetan betirako. Oraindik ere bizirik zegoen giza buru bat agertze eta desagertze hori hain zen izugarria, baina, horrekin batera –hain bizkor eta ezustean gertatu zelako edota betaurrekoak sudurretik erori zitzaizkiolako, agian– bazuen halako ukitu bat ere hain barregarria, non barre-algara bat atera baitzitzaidan bat-batean eta guztiz ustekabea; une hartan, ordea, etxeko laguna izanik, barre egitea gaizki egokitzen zela oharturik, Elena Ivanovnareganantz biratu eta begirada errukior batez esan nion:

–Oraintxe kaput gure Ivan Matveitx!

Ezin dut pentsatu ere nola deskribatu zenbaterainoko bihotz-ikarak hartu zuen Elena Ivanovna prozesu hori guztia gertatzen zen bitartean. Hasieran, lehenengo oihuaren ondoren, harri bihurturik bezala geratu zen zegoen lekuan eta itxuraz axolarik ez balio bezala begiratzen zion bere aurrean gertatzen ari zen iskanbilari, baina begiak erabat irtenak balitu bezala; ondoren oihu erdiragarriak egiten hasi zen bat-batean, baina nik besotik heldu nion. Une horretan jabeak ere, hasieran izumenak leloturik geratuak, bat-batean eskuak batu eta oihu egin zuen zerura begira:

–Ai, nire krokodiloa, oi mein allerliebster Karlchen! Mutter, Mutter, Mutter!<sup>1</sup>

Garrasi haiekin batera, atzeko atea zabaldu eta mutter azaldu zen, gaueko txanoz jantzitako emakume musu-gorri, adinekoa, txima-nahasia, eta oihuka oldartu zen bere alemanarengana.

<sup>1</sup> Oi nire Karlchen maitea! Ama, ama, ama! (Jatorrizkoan alemanez).

Sekulako iskanbila hasi zen bat-batean: Elena Ivanovnak gauza bat baizik ez zuen oihu egiten, erotuta bezala: “Sartu labana! Zabaldtu tripak!”, eta jabearengandik mutterarengana oldartzen zen, –oharkabea, seguru asko– norbaiti zerbaitengatik tripak zabaltzeko eskatuz, itxuraz. Jabeak eta mutterak ez batari ez besteari ez ziguten jaramonik egiten: marru batean ari ziren bi-biak, txekorrek bailiran, askaren ondoan.

–Galdu da, lehertu egingo da, ganz<sup>2</sup> funtzionario bat irentsi du-eta –egiten zuen oihu jabeak.

–Unser Karlchen! Unser allerliebster Karlchen wird sterben!<sup>3</sup> –esaten zuen alarauka emakumeak.

–Gu, zurtz eta ogirik ez! –jarraitu zuen jabeak.

–Zabaldtu tripak, zabaldtu tripak, zabaldtu tripak! –egiten zuen Elena Ivanovnak, alemanaren lebitari atxikirik.

–Krokodilo zirikatu, zergatik krokodilo zirikatu! –egiten zuen oihu alemanak, harengandik askatzen ahaleginduz–; Karlchen lehertu, zuk ordaindu; das war mein Sohn, das war mein einziger Sohn!<sup>4</sup>

Egia esan behar badut, izugarritzko amorrazioa nuen, aleman arrotz haren egoismo hura eta haren mutter zabarraren bihotz-lehortasuna ikusirik; baina Elena Ivanovnak etengabe errepikatzen zituen garrasi haiek: “Tripak zabaldtu, tripak zabaldtu!” are gehiago larriagotzen ninduten eta arreta guztia hartu zidaten azkenerako, izutu ere egiteraino... Esan beharra dut, ordea, kontrara ulertu nituela garrasi bitxi haiek: Elena Ivanovna une batez burutik nahastu zela iruditu zitzaidan, baina hala ere bere Ivan Matveitx maitearen galeraren ordainetan, mendeku gisa, krokodiloa zigorkatzeko eskatzen ari zela. Izatez, ordea, oso bestelako gauza bat ari zen adierazten. Aterantz, eta ez nahasmenik gabe, begiratu, Elena Ivanovnari sosegatzeko erregutzen hasi nintzen eta, batez ere, ez erabiltzeko “zabaldtu tripak” hitz minberagarri haiek. Zeren non eta hantxe, Passagearen bihotz-bihotzean eta lagunarte jakintsu baten erdian, une horretan bertan agian Lavrov jauna hitzaldi publiko bat ematen ari zen aretotik bi pausora horrelako desira retrogrado bat adieraztea ezin sinistuzkoa ez ezik, pentsatu ere ezinezkoa baitzen, eta une batetik bestera Stepanov jaunaren iseka-txistuak eta karikaturak erakar baitziezakigukeen, gainera. Berehalaxe ikusi nuen, izututa, zuzen nembilela nire beldurrezko susmo haietan: bat-batean krokodiloaren gela hogeita bost kopekak kobratzen zituzten sarrerako gela-zulotik bereizten zuen errezele zabaldtu, eta gizon bibotedun bat agertu zen sarreran, bizarduna, buruko kapela eskuetan zuela, gorputzaren goiko alde ahal zuen guztia aurrera makurturik eta ahaleginean hankak krokodiloaren gelatik kanpora edukitzen saiatuz, sarrera ez ordaintzeko eskubidea ez galtzeko.

–Horrelako desira retrogrado bat izateak, andrea –esan zuen ezezagunak, nolabait gure aldera erori gabe, atalaseaz beste aldean geratzen ahaleginduz– ez dio ohorerik egiten zure adimen mailari eta

<sup>2</sup> funtzionario bat osorik (Jatorrizkoan alemanez).

<sup>3</sup> Karltxo gurea! Hil egingo da gure krokodilo maitea! (Jatorrizkoan alemanez).

<sup>4</sup> Nire semetxoa zen, nire semetxo bakarra! (Jatorrizkoan alemanez).

garunean fosforo aski ez izateari zor zaio. Aurki hasiko zaizkizu iseka-txistuka Progresoaren Kronikan eta gure satira-orrietan...

Baina ezin izan zuen bukatu: jabea, bere onera etorririk, eta pertsona bat sartzeko ezer ordaindu gabe krokodiloaren aretoan hitz egiten ikusi eta ikaraturik, amorru batean oldartu zen progresista ezezagunaren kontra eta esku bien ukabilkada banaz bota zuen handik kanpora. Une batez biak desagertu ziren gure bistatik errezelaren atzean, eta orduan baizik ez nintzen ohartu ezerezetik sortu zela iskanbila hura guztia; Elena Ivanovnak ez zuen ezeren errurik: ez zuen inondik ere, gorago ere esan dudan bezala, krokodiloari makilaz jipoitzearen tortura retrogrado eta apalgarria ezartzeko asmorik, baizik eta, Ivan Matveitx haren barrenetik askatzeko, laban batez sabela zabaltzea nahi zuen soil-soilik.

–Zer! Nire krokodiloa hiltzea nahi! –hasi zen oihuka haren jabea, berriro lasterka etorririk–, ez, lehenengo zure senarra hil, eta gero krokodil!... Mein Vater<sup>5</sup> erakusten krokodiloa, mein Grossvater<sup>6</sup> erakusten krokodiloa, mein Sohn<sup>7</sup> erakutsiko krokodiloa, eta nik erakusten krokodiloa! Denek erakutsi krokodiloa! Ni ganz European ezaguna, baina zu ganz European ez ezaguna, eta isuna pagatuko niri.

–Ja, ja! –sartu zen aleman emakumea haserre–, joaten ez utziko, Karlchen hilda, isuna!

–Sabela zabaltzea alferrik izango litzateke, gainera –gehitu nuen nik soseguz, Elena Ivanovna al bait lehen handik etxera eraman nahirik–, gure Ivan Matveitx maitea dagoeneko enpireoetan hegan dabil-eta seguruenik.

–Adiskidea –entzun zen une horretan, gutxien uste izateko moduan, Ivan Matveitxen ahotsa, gu erabat txundituta utziz–, adiskidea, nire iritzian hobe da komisariara zuzen jotzea, zeren bestela aleman honek, poliziaren laguntzarik gabe, ez baitu ulertuko zer ari den gertatzen.

Hitz horiek, indarrez, autoritatez esanak, odol hotz bereziz adieraziak baitziren, hainbestearino txunditu gintuzten hasieran non ezin baikenuen sinistu gure belarriek entzuten zutena. Baina, jakina, krokodiloaren askara ondoratu ginen segituan eta begirunez bezain sinistu ezinik entzun genion preso gizajoari. Haren ahotsa motela, ahula eta are kirrinkaria zen, nahiko urrutitik baletor bezala. Beste gela batera erretiratu eta ahoa logelako bururdi arrunt batez estalirik, oihuka hasi eta ondoko gelan dagoen entzuleriarentzat bi pertsonak basamortuan edo elkarrengandik bereizten dituen amildegia sakon baten gainetik elkarri nola hots egiten dioten imitatu nahi dituen bromazale bat gogoratzen zuen; horrelako bat entzuteko atsegina izan bainuen behin Gabonetan, ezagun batzuenen.

–Ivan Matveitx, maitea, bizirik zaude-eta! –zezelkatzen zuen Elena Ivanovnak.

<sup>5</sup> Nire aitak (Jatorrizkoan alemanez).

<sup>6</sup> Nire aitonak (Jatorrizkoan alemanez).

<sup>7</sup> Nire semeak (Jatorrizkoan alemanez).



–Bizirik eta onik –erantzun zuen Ivan Matveitxek–, eta, inolako okerrik gabe irentsita, Jaungoikoari esker. Gauza batek bakarrik kezkatzen nau: nola ikusiko ote duten gertaera hau nire nagusiek; zeren atzerrira joateko billetea lortu ondoren, krokodilo baten barrura joateak ez baitu grazia handirik...

–Zu ez kezkatu grazia duen ala ez, adiskidea; zu hortik kanpora erauzteko moduren bat aurkitu behar dugu, lehenengo gauza –eten zion Elena Ivanovnak.

–Erraazi! –egin zuen oihu jabeak–, ez dut utziko krokodiloari ezer errauzterik. Orain, askoz publikum gehiago etorriko, fünfzig<sup>8</sup> kopek kobratuko eta Karlchen ez lehertuko.

–Gott sei Dank!<sup>9</sup> –erantsi zuen ugazabandreak.

–Arrazoia dute –ohartarazi zuen patxadaz Ivan Matveitxek–, ekonomiaren printzipioa ororen gainetik.

–Adiskidea –egin nion oihu–, oraintxe noa hegan nagusiengana eta esan egingo diet, zeren badut susmoa guk bakarrik ez dugula ezer onik asmatuko.

–Horixe uste dut nik ere –ohartarazi zuen Ivan Matveitxek–, baina merkatu-krisiko gure garai honetan zaila da krokodilo baten sabela ordain ekonomiko bat eman gabe, doan zabaltzea, eta horrekin batera, beste galdera bat, erremediorik gabe: zenbat eskatuko du jabeak krokodiloarengatik? eta horrekin batera beste bat: nork ordainduko du?, zeren badakizu nik ez dudala ondasunik...

–Zure soldatetik aurrerapena hartuta, beharbada –ohartarazi nion herabez; baina krokodiloaren jabeak segituan eten zidan:

–Nik krokodiloa ez salgai; nik krokodiloa saldu hiru mila; krokodiloa saldu lau mila! Orain publikum asko etorriko. Krokodiloa saldu, bost mila!

Hitz batean esateko, jasan ezinezko moduan harrotu zen; diru-gosea eta irrika nazkagarria alaikiro ikusten zitzaizkion begietan dirdir.

–Banoa ni hemendik! –egin nion oihu, erabat gaitzituta.

–Ni ere bai! Baita ni ere! Andrei Osipitxenganaino joko dut, eta hunkituko egingo dut nire malkoez – esan zuen negarti Elena Ivanovnak.

<sup>8</sup> Berrogeita hamar (Jatorrizkoan alemanez).

<sup>9</sup> Eskerrak! (Jatorrizkoan alemanez).

–Ez ezazu egin horrelakorik, maitea –eten zion albait lasterren Ivan Matveitxek, aspaldidanik baitzebilen Andrei Osipitxen jelsiaz eta bai baitzekien emaztea pozik joango zela gizon jakintsu baten aurrean negar egitera, malkoek edertu egiten zutelako–. Eta zuri ere ez dizut aholkatzen, adiskidea –jarraitu zuen, niri mintzatuz–; besterik gabe joateak ez du merezi; gainera, zer aterako da honetatik. Gaur hobe duzu Timofei Semionitxengana joatea, bisita pribatu gisa. Gizon zaharkitua eta motz samarra da, baina prestua eta, garrantzitsuena, gizon zuzena da. Agurtu nire izenean eta deskribatu gertatutakoaren zirkunstantziak. Eta, kartetan egin genuen azkeneko alditik zazpi errublo zor dizkiodanez, emazkiozu, aukera duzunez: horrek bigundu egingo du agure lehor hori. Nolanahi ere, haren aholkuak zer egin erabakitzeke balioko digu. Eta bien bitartean eraman hemendik Elena Ivanovna... Lasaitu zaitez, maitea –jarraitu zuen, hari mintzatuz–, nekatuta nago garrasi horiez eta emakume-liskar horiez guztiez eta lokamuska bat egin nahiko nuke. Hemen epel egiten du eta biguna dago, nire ustekabeko aterpe hau aztertzeke astirik oraindik izan ez badut ere...

–Aztertu! Hor argia duzu, ala? –egin zuen oihu harriturik Elena Ivanovnak, pozarren.

–Gau ilunak inguratzen nau –erantzun zuen preso gaixoak–, baina haztatu dezaket eta, nolabait esateko, eskuez azter dezaket... Agur, bada; egon lasai eta ez baztertu jostagarri guztiak. Bihar arte! Eta zu, Semion Semionitx, etorri arratsaldean bisita egitera, eta arduragabe hutsa zerenez eta beharbada ahaztu egingo duzunez, egin korapilo bat musuzapian...

Aitortu behar dut pozten ninduela alde egiteak, oso nekatuta eta aspertzen hasita bainengoen dagoeneko. Bizkor-bizkor Elena Ivanovnari besotik heldu –goibel baina emozioak ederturik zegoen– eta albait lasterren atera nuen krokodiloaren gelatik.

–Arratsean sartzeagatik, beste hogeita bost kopek! –egin zigun oihu jabeak atzetik.

–Jaungoikoa, hauek diruzaleak! –jaulki zuen Elena Ivanovnak, Passageko hormetako ispilu guztietan bere irudiari begiratzuz eta, itxuraz, ohi baino ederrago zegoela ohartzuz.

–Ekonomiaren printzipioa –erantzun nion emozio pixka batez eta oinezkoen aurrean halako damarekin nembilelako harro.

–Ekonomiaren printzipioa... –errepikatu zuen hark ahostxo atsegin batez–; Ivan Matveitxek ekonomiaren printzipio gorrotagarri horri buruz esan duenetik ez dut tutik ere ulertu.

–Nik azalduko dizut –erantzun nion eta atzerriko kapitalak gure aberrira erakartzearen emaitza onuragarriez hitz egiten hasi nintzaion, “Petersburgoko Berriak” eta “Ilea” egunkarietan goiz hartan bertan irakurri berria nuenaren arabera.

–Bai gauza bitxia! –moztu zidan, une batez entzuten egon ondoren–; utz ezazu hori behingoz, nazkagarri hori; zer tontakeria ari zara esaten... Esadazu, oso gorrituta nago?

–Zoragarria zaude, ez gorriturik! –esan nion, aukera hartaz konplimendu bat egiteko baliatuz.

–Alproja! –zezelkatu zuen atseginez–. Ivan Matveitx gaixoa –jarraitu zuen handik minutu batera, burutxoak koketeriaz bizkarrerantz makurtuz–, niri, egia esan, pena ematen dit! Jaungoikoa! –eta oihuka hasi zen bat-batean–, esadazu, nola jan behar du gaur hor barruan eta... eta... nola moldatu behar du... premiaren bat baldin badu?

–Aurreikusiezinezko arazoa –erantzun nion, neu ere nahasturik. Egia esateko, ez zitzaidan burutik pasatu ere egin hori; horretarako emakumeak praktikoagoak dira gu, gizonok, baino, eguneroko arazoak konpontzeko!

–Gaixoa! Nola sartu ote da hor barrura... inolako entretenimendurik gabe eta ilunpetan... Hauxe pena, ez zait geratu argazki bat ere geratu bererik... Eta hala, hemen naukazu orain alargun baten moduan... –gehitu zuen irribarre limurtzaile batez, bere egoera berrian interesaturik, bistan zenez–; um... pena ematen dit, nolana ere!...

Hitz batean esateko, senarra galdu berria duen emakume gazte eta xarmagarri baten tristura guztiz ulergarri eta naturala erakusten zuen. Azkenean bere etxeraino eraman nuen, lasaitu nuen eta, berekin bazkaldu eta kafe-katilu urruntsu bat hartu ondoren, arratsaldeko seietan Timofei Semionitxen etxerantz abiatu nintzen, familia duen eta egoera onean dagoen edonor ordu horretan etxean atsedeten egongo zelako ustean.

Lehen atal hau gertatutakoaz kontatzen dudanari dagokion estilo txukunean idatzirik, hemendik aurrera estilo neurtuago baina ez honen jaso, baina bai naturalago batean idazteko asmoa daukat, eta halaxe jakinarazten diot aurrez irakurleari.

## II

Timofei Semionitx agugarriak zalaparta antzean eta nahikoa nahastuta balego bezala hartu ninduen. Bere bulego estura eraman ninduen eta kontu handiz itxi zuen atea: “Haurrek trabarik egin ez diezaguten” –esan zuen nabarmen asaldatuta. Ondoren aulki batean eserarazi ninduen bere idazmahaiaren ondoan, bera besaulki batean eseri zen, bere kotoizko etxeko jantziaren beheko ertzak gurutzatu zituen eta, zer gerta ere, halako itxura ofizial, ia zorrotza hartu zuen, nahiz eta ez izan nire nagusia, eta ezta Ivan Matveitxena ere, ordu arte lankide soila baizik, edo ezagun soila.

–Lehenik eta behin –hasi zen esaten–, kontuan hartu ni ez naizela ugazaba, agindupeko pertsona bat baizik, zu bezala, Ivan Matveitx bezala... Ni alde batean nago eta ez daukat inolako asmorik horretan nahasteko.

Harritu egin nintzen itxuraz dagoeneko dena zekielako. Hala eta guztiz ere, berriro kontatu nion historia osoa xehetasun guztiekin. Emozioz eta guzti hitz egin nion, zeren egiazko lagun baten eginbearra ari bainintzen betetzen une hartan. Harridura berezirik gabe, baina mesfidantza-seinale argiak emanez entzun zidan.

–Ba, pentsa ezazu –esan zuen, entzun ondoren–; beti uste izan dut seguru gertatu behar zitzaiola horrelakoren bat.

–Zergatik hori, Timofei Semionitx? Gertaera bera ondo berezia iruditzen baitzait...

–Bai, ados. Baina Ivan Matveitxek ondorio horretaraxe jo izan du bere enplegu-karrera guztian zehar. Ausarta da, buru-iritzia esango nuke. “Progresua”, eta gisa horretako ideik beti, eta horra nora daraman progresuak!

–Baina gertaera hau ohiz kanpokoa da guztiz, eta ezin har daiteke progresista guztientzako arau orokor gisa...

–Hala da, ordea. Hau dena, badakizu?, gehiegizko eskolatze baten ondorioa da, sinesten ahal didazu. Zeren gehiegi eskolatutako jendeak alde guztietan sartzen baitu muturra, inork deitzen ez dien lekuetan batez ere. Baina zuk gehiago dakizu, beharbada –gehitu zuen, minduta bezala–. Ni ez naiz hain eskolatua, eta zaharra naiz, gainera; soldadu baten seme gisa hasi nintzen, eta aurtan bete ditut berrogeita hamar urte lanbide honetan.

–Ez horixe, Timofei Semionitx, barkatu. Oso bestela baizik; Ivan Matveitx irrikatan dago zure aholkua, zure orientabideak jasotzeko. Begiak malkotan erregutzen dizu, esango nuke.

–Begiak malkotan. Um... Krokodilo-malkoak dira horiek, eta ez osorik sinistekoak. Baina, esadazu, zer dela-eta atzerrira joan behar hori? Eta zer dirurekin, gainera? Zeren dirurik ez du, ez da?

–Azkeneko lan-sarrietatik aurreratutakoarekin, Timofei Semionitx –erantzun nion errukizko doinuz–. Hiru hilabeteko bidaia bat, horixe besterik ez, Suitzara, Gilen Tell-en aberrira.

–Gilen Tell? Um!

–Napolin udaberriaren iritsiera ikusi nahi zuen. Museoak ikusi, ohiturak, animaliak...

–Um! Animaliak? Ba, harrokeria hutsa, nire iritzian. Zer animalia? Animaliak? Gurean animalia gutxi al dago, bada? Badira piztia-etxeak, museoak, gameluak. Petersburgo ondo-ondoan badituzu hartzak. Eta horra, bera krokodilo baten barruan orain...

–Mesedez, Timofei Semionitx, gizon hori estuasun larrian dago, gizon horrek adiskide gisa jotzen du zuregana, ahaide zaharrago batengana bezala, zure aholkuaren eske, eta zuk erasiaka erantzuten diozu... Elena Ivanovna gaixoaz errukitu zaitez, besterik ez bada!

–Haren emaztea nahi duzu esan? Emakumetxo xarmagarria –esan zuen Timofei Semionitxek, eta nabarmen bigundurik, atsegin handiz hartu zuen tabako-hurupada bat–. Pertsona zolia. Bete samarra, burutxoa beti alborantz makurtua bezala duena, makurtu samarra... Oso atsegina. Herenegun bertan hitz egin zidan hartaz Andrei Osipitxek.

–Hari buruz hitz egin zizun?

–Bai jauna, eta laudorioz aipatu ere. Bularra, esaten zuen, begirada, orrazkera... Emakumea baino bonboi bat areago, esaten zuen, eta barre egin genuen. Gazteak dira oraindik –Timofei Semionitxek zarata handiz zintz egin zuen–. Eta gaztea, gainera, eta nolako karrera ari diren egiten bien bitartean...

–Bai, baina orain bestelako kontu bat da, Timofei Semionitx.

–Jakina, jakina!

–Hortaz, zer, Timofei Semionitx?

–Zer egin dezaket, bada, nik?

–Esperientzia handiko pertsona bezala, ahaide bezala, emaiozu aholkuren bat! Nondik jo? Agintariengana jo ala...

–Agintariengana? Ez horrelakorik –esan zuen presaka Timofei Semionitxek–. Aholku bat nahi baduzu, beste ezer baino lehen kontu hau estali eta, nolabait esateko, pertsona pribatu gisa behar da jokatu. Kasu susmagarria da, eta aurrekaririk gabea. Hori batez ere, aurrekaririk ez da, eta dio gehitzen merezimendurik... Horregatik, zuhurtzia batez ere... Egon dadila han pixka batean. Itxaron egin behar da, itxaron...

–Baina nola itxaron, Timofei Semionitx? Eta han itotzen baldin bada?

–Zergatik ito behar du? Zeuk esan ez duzu bada, nahiko konfort onean instalatu dela?

Berriro kontatu nion dena, hasieratik hasita. Timofei Semionitx gogoeta egin zuen.

–Um! –esan zuen, tabako-hautsaren kaxatxoa esku artean biratuz– nire iritzian ona izango da, gainera, atzerrira joan ordeztu aldi baterako han geratzen bada. Atsedendia horretan gogoeta egin dezala; ez du ito behar, eta horregatik behar diren neurriak hartu behar dira onik egon dadin: ez tulik ez dezala harrapatu, eta gainerakoak... Eta alemanari dagokionez, eskubide osoa du, nik uste, beste alderdiak baino gehiago, gainera, zeren baimenik gabe sartu baitira bere krokodiloaren barruan, eta ez da bera sartu Ivan Matveitxen krokodiloaren barruan baimenik gabe, beste aldetik, gogoratzen naizenez behintzat, ez baitzuen krokodilorik. Beraz, krokodiloa jabetza pribatuko ondasuna denez, ezin zaizkio barrenak atera kalte-ordainik eman gabe.

–Gizadia salbatzeko, Timofei Semionitx.

–Hori poliziaren kontua da. Haiengana jo behar da.

–Baina gerta daiteke zerbaitetarako Ivan Matveitxen beharra izatea. Dei diezaiokete zerbaitetarako.

–Ivan Matveitxen beharra? Je, je! Ofizialki oportetan dago, gainera; ahaztu dezakegu, beraz, Europako lurrik ezagutzen ari den bitartean. Bestelako kontua izango litzateke denbora hori igarota azaltzen ez baldin bada; orduan bai, galdetuko dugu, ikerketak egingo ditugu...

–Hiru hilabeteren buruan! Mesedez, Timofei Semionitx!

–Berak du errua. Nork sartu du han? Gauzak horrela badira, haurtzain bat kontratatu beharko zaio gobernuaren kontura, baina hori ez dago aurreikusita langile-partidetan. Eta garrantzitsuenak: krokodiloa ondasun pribatua da; beraz, ekonomiaren printzipioa deituak agintzen du horretan. Eta ekonomiaren printzipioa doa beste ororen aurretik. Herenegun gauean bertan hitz egin zuen horretaz Ignatii Prokofitxek Lukas Andreitxen etxean; Ignatii Prokofitx, ezagutzen duzu? Kapitalista bat da, ur handitakoa, eta, badakizu, badaki hitz egiten: “Industria behar dugu –esaten zuen–, industria gutxi dugu. Sortu egin behar dugu. Kapitalak sortu behar dira, hau da, bitarteko maila bat, burgesia deitua sortu behar da. Eta kapitalik ez dugunez, atzerritik erakarri beharko ditugu. Lehenik eta behin bidea

eman beharko zaie atzerriko konpainiei gure lurretan sailak eros ditzaten, gaur egun atzerrian alde guztietan egiten den bezala. Herri-jabetza pozoia da –esaten du hark–, hondamendia! Eta, badakizu zein suharki hitz egiten duen; normala da beraiantzat: kapitala dute... ez dira enplegatuak. Herri-jabetzarekin, ez industria ez nekazaritza ez omen dira indartuko. Atzerriko konpainiek ahal dela puskaka gure lur guztia eros dezaten ahalegindu behar da eta gero zatitu eta berriro zatitu ahal diren zatirik txikienetan, eta, badakizu, zzzatitu, horrela nabarmenduz; eta orduan jabetza pribatuan saldu. Edo, hobeto, ez saldu, eta errentan eman. Lur guztia atzerriko konpainien eskuetan dagoenean, esaten zuen, orduan nahi den prezioa jarri ahal izango da errentagatik. Horrela bada, nekazariak hiru aldiz lan gehiago egingo du, eguneroko ogiaren truke bakarrik, eta nahi denean bota ahal izango da lanetik. Horrela ulertuko du; esanekoa, saiatua izango da eta hiru aldiz gehiago produzituko du prezio beragatik. Zeren orain, herri-jabetzarekin, zer axola dio berari? Badaki ez dela goseak hilko, eta alferkerian eta mozkorkerian ibiltzen da. Bien bitartean dirua erakarriko genuke, kapitalak osatuko lirerateke eta burgesia garatuko litzateke. Times berak, ingeles egunkari politiko eta literarioak, gure finantzez ari zela, oraindik aspaldi ez dela adierazten zuen ezen horrexegatik ez zirela handitzen gure finantzak, gure artean erdiko mailarik ez dagoelako, fortuna handirik ez dagoelako, proletario adeitsurik ez dagoelako...” Ongi hitz egiten du Ignatii Prokofitxek. Hizlari ona da. Txosten bat aurkeztu nahi die nagusiei eta gero Izvestian argitaratu. Horiek ez dira Ivan Matveitxen bertso kaxkarrak...

–Eta Ivan Matveitx, zer? –tartekatu nuen berriro, agureari hitz egiten utzi ondoren. Timofei Semionitxi gustatu egiten zitzaion aldiaren behin luze jardutea eta frogatzea ez zebilela atzeratuta, jakinean baizik.

–Ivan Matveitx zer? Horretaraxe noa, hain zuzen. Hemen gabiltza atzerriko kapitalak gure aberrira erakarri nahiz eta zeuk ikusten duzu: krokodilo-zaleak ekarri duen kapitala, Ivan Matveitxen bitartez, oraindik bikoiztu baizik ez da egin eta, atzeritar jabe hori babestu ordez, non hasten gaituzun bere kapital nagusiari sabela zabaldu nahiz. Zentzuzkoa da hori? Nire iritzian, Ivan Matveitxek, aberriaren egiazko seme bezala, pozez eta harro egon beharko luke, atzeritar krokodiloaren balioa bikoiztu, beharbada hirukoiztu ere bai, egin delako bere bitartez. Hori behar da kapitalak erakartzeko. Batek arrakasta badu, ikusiko duzu, etorriko da beste bat beste krokodilo batekin, eta bi edo hiru ekarriko ditu batera, eta haien inguruan kapitalak pilatuko dira. Eta horra burgesia. Horixe bultzatu behar da.

–Mesedez, Timofei Semionitxi! –esan nion oiher eginez–; ia-ia naturaz gaindikoa sakrifizio bat exijitzen diozu Ivan Matveitx gaixoari!

–Nik ez diot ezer exijitzen, eta lehenik eta behin erregutzen dizut, lehen ere erregutu dizudan bezala, kontuan hartzeko ni ez naizela nagusietakoa eta, horrenbestez, ezin diodala inori ezer exijitu. Aberriaren seme gisa hitz egiten dut, hau da, ez dut hitz egiten “Aberriaren Semeak” egunkariak bezala, aberriaren seme bezala baizik. Beste alde batetik, nork agindu dio krokodilo barruan sartzeko? Gizon prestua, maila ezagutu bateko gizona, legeak agintzen duen bezala ezkondua, eta ez nondik eta ez handik horrelako pausoa egin! Zentzurik badu?

–Pauso hori nahi gabe izan da, ordea.

–Nork daki hori? Eta, esadazu, gainera, nondik ordaindu krokodiloaren jabeari?

–Bere soldatetik aurreratuz; ezta, Timofei Semionitxi?

–Aski izango da?

–Ez da aski izango, Timofei Semionitx –erantzun nion, saminki–. Krokodiloaren jabea izutu egin zen hasieran, krokodiloa lehertu egingo zitzaiolakoan, baina gero, dena ongi zihoala ikusirik, harrotzen hasi zen, poztu egin zen sarreraren prezioa bikoiztu egin zezakeelako.

–Hirukoiztu, laukoiztu ere bai, beharbada! Ikusleak pilaka etorriko dira orain, eta krokodilo-jabeak jende bizkorra dira. Ez dira bijilia-egunak, gainera, dibertitzeko gogoia dago eta horregatik, berriro esaten dizut, bere inkognittoa gorde behar du Ivan Matveitxek, ez du larritu behar. Jakin dezatela denek krokodiloaren barruan dagoela, baina ez dezatela ofizialki jakin. Alderdi horretatik, Ivan Matveitx bereziki egoera onuragarrian aurkitzen da, atzerrian baitago ofizialki. Krokodiloaren barruan dagoela esango dute; guk ez dugu egiaztatuko. Horretan laburbil daiteke dena. Itxaron dezala, hori da garrantzitsuena; norako presa du, gainera?

–Bai, baina...

–Ez kezkatu, sendoa da...

–Bai, eta gero, itxaron ondoren?

–Ba, ez dizut ezkutatuko kasu hau guztiz berezia denik. Ez da erraz ulertzen eta, batez ere, okerrena, orain arte ez dela izan horrelako aurrekaririk. Eredurik izango bagenu, izango genuke argitzeko moduren bat. Baina nola konpondu, honela? Ulertzen saiatzen bagara, luzatu egingo da gauza.

Ideia distiratsu bat bururatu zitzaidan.

–Ezin al daiteke moldatu –esan nuen– bere patua munstroaren erraietan geratzea baldin bada, eta probidentziaren nahia baldin bada bizirik irautea, ezin al daiteke moldatu eskaera bat aurkezteko hala ere ofizialki lanean balego bezala har dezaten?

–Um... oporretan eta soldatarik gabe, beharbada...

–Soldatarekin ezinezkoa da?

–Zertan oinarrituta?

–Negozio-bidaia gisa...



–Nolako betekizunetara eta nora?

–Ba, erraietara, krokodiloaren erraietara... Informazioa biltzeko, eman dezagun, gauzak bertatik ikertzeko. Hori gauza berria izango da, jakina, baina progresista izango da, eta jakintzarengatik arreta erakutsiko luke aldi berean ...

Timofei Semionitx pentsakor geratu zen.

–Krokodiloaren erraietara eginkizun berezi baterako funtzionario berezi bat bidaltzeak ez luke zentzurik, nire iritzian –esan zuen azkenean–. Estatuetan ez da ageri horrelakorik. Eta zer eginkizun izan daiteke, gainera, han?

–Izadia bertatik bertara, bizitan eta zuzenean, ikertzeko, nolabait esateko. Oraintxe bertan bolada-boladan daude izadi-jakintza, botanika... Bera hantxe biziko litzateke eta... ba... digestioaren edo, nik al dakit, ohituren berri emango liguke. Datuak biltzeko.

–Estatistikarako, alegia. Horretan ez naiz ona, eta ez naiz filosofoa ere. Datuak, esaten duzu; baina nahikoa eta sobera ditugu datuak eta ez dakigu zertarako erabili. Estatistika hori arriskutsua da, gainera...

–Zertan?

–Arriskutsua. Ados egongo zara, bestalde, egonean egonez ezagutaraziko lituzkeela datu horiek. Eta lanik egin al daiteke alferkeria goxoan egonez? Hori ere berria da, eta arriskutsua gainera; eta horretan ere aurrekaririk ez da. Horren aurrekaritxoren bat balitz behintzat, orduan bai, eman ahal izango litzaioke zerbitzu-betekizuna, nire iritzian.

–Baina, orain arte inork ez baitu ekarri krokodilo bizirik, Timofei Semionitx jauna.

–Um, bai... –gogoeta egin zuen berriro–. Hala nahi baduzu, arrazoia duzu horretan eta zure argudio hori balia daiteke hori arazo honen tramitazioa aurrera eramateko oinarri gisa. Baina har ezazu kontuan krokodilo bizi gehiago agertzearekin enpleguak desagertzen hasten baldin badira eta gero, han berotan eta gozo-gozo daudela-eta, zerbitzu-betekizunetara bidal ditzaten eskatzen badute, eta gero egonean geratzen badira... zeu ere ados egongo zara, etsenplu kaxkarra izango dela. Zeren, horrela balitz, hara nahiko kukete denek, lanik gabe dirua irabazteko.

–Saia zaitetz haren alde zerbait egiten, Timofei Semionitx! Bide batez: karta-jokoko zorra, zazpi errublo, emateko erregutu dit Ivan Matveitxek...

–A, bai; lehengo batean galdu zituen, Nikifor Nikiforitxenean! Gogoan dut. Orduan bai, alai zegoen,

txantxak egiten, eta begira orain!...

Agurea egiaz hunkiturik zegoen.

–Saia zaitetz, Timofei Semionitx!

–Saiatuko naiz. Neure izenean hitz egingo dut, neure aldetik, informazio eske ariko banintz bezala. Eta, beste alde batetik, jakin ezazu, bide ofizialez kanpotik, zeharbidez, ea krokodiloaren ordainez zenbat dirurekin konformatuko litzatekeen haren jabea.

Timofei Semionitx biguntzen ari zen, nabarmen.

–Hutsik egin gabe egingo dut –erantzun nion–, eta segituan etorriko naiz berria zuri ematera.

–Eta emaztea... bakarrik dago orain? Aspertuta?

–Ikusi bat egingo bazenio, mesede, Timofei Semionitx.

–Joango naiz, asmoa banuen azkenaldi honetan, eta aukera ona da... Baina zerk, zerk bultzatu du krokodiloa ikustera? Neuk ere banuen ikusteko gogoia, hala ere.

–Egiozu bisita bat gaixo horri, Timofei Semionitx jauna.

–Egingo diot. Baina, hori bai, nire urrats honekin inori ez diot itxaropenik piztu nahi. Partikular joango naiz... Ikusi arte, beraz; Nikifor Nikiforitxenera joatekoa naiz berriro; han izango zara?

–Ez, ni presoa ikustera noa.

–Bai, orain preso baitago!... Ai, buru-arina izatea!

Agurea agurtu nuen. Era askotako burutapenak zebilzkidan buruan. Timofei Semionitx bihotz oneko gizona, gizon prestua zen, baina poztu egin nintzen harenetik ateratzean, bere lanean dagoeneko berrogeita hamar urte bete zituelako eta gure artean dagoeneko Timofei Semionitx askorik ez zelako. Hegan joan nintzen Passagera, jakina, Ivan Matveitx gaixoari den-denaren berri ematera. Eta jakin nahi nuen, gainera, nola ari zen moldatzen krokodiloaren barruan eta nola bizi zaitzkeen krokodilo baten barruan. Hain zuzen ere, egiaz bizi daiteke bat krokodilo baten barruan? Une batzuetan, izan ere, halako amets izugarri bat zela iruditzen zitzaidan hura dena; are eta gehiago munstro bat zelako, hain zuzen...

### III

Ba ez, ez zen ametsa, benetako errealitate zalantzarik gabea baizik. Nola ariko nintzen kontatzen, bestela? Baina, noan aurrera...

Berandu iritsi nintzen Passagera, bederatziak inguruan, eta atzeko atetik sartu behar izan nuen krokodiloa zegoen aretora, oraingo honetan ohi baino lehen itxi baitzuen alemanak saltokia. Etxeko jantzian zebilen lebita xahar krakatsu batez jantzita, baina goizean, artean aspaldi ez zela, baino hiru aldiz kontentuago. Begien bistan ageri zen dagoeneko ezereen beldurrik ez zuela eta “publikum asko etorri” zela. Mutterra geroago azaldu zen, ni zaintzeko, inondik ere. Alemanak eta mutterrak maiz hitz egiten zuten elkarrekin txutxu-mutxuka. Saltokia itxita zegoen dagoeneko, baina hogeita bost kopek kobratu zidan hala ere. Zein zehaztasun beharrik gabea!

–Zuk aldi bakoitzean ordaindu behar; publikumak errublo bat pagatu, zuk hogeita bost kopek, zeren zu zure lagun onaren lagun ona eta nik estimatzen lagunak...

–Bizirik zaude, bizirik zaude nire lagun jakintsua? –esan nion oiher eginez, krokodiloarengana hurbilduz eta nire hitzak, urrutitik bazen ere, Ivan Matveitxi iritsi eta bere buruaren oniritzia goratuko ziotelako itxaropenean.

–Bizirik eta onik –erantzun zidan, urrutitik edo oheperen batetik ari balitzait bezala, nahiz eta bere ondo-ondoan egon ni–, bizirik eta onik, baina horretaz gero hitz egingo dugu... Zer moduz gauzak?

Nahita, galdera entzun izan ez banu bezala, ia hasi nintzen galdetzen, sinpatiaz eta bizkor-bizkor, nola aurkitzen zen, nola moldatzen zen krokodiloaren barruan eta oro har krokodiloaren barruan zer zegoen. Adiskidetasunak eta jendetasun normalak ere eskatzen zuten horrenbeste. Hark, ordea, lainezaz eta zakarki moztu zidan.

–Zer moduz gauzak? –egin zidan oiher, aginduka, ohi bezala, bere ahots garratz, oraingo honetan bereziki gorrotagarriaz.

Oso-osorik kontatu nion Timofei Semionitxekin izandako solasa, xehetasun guzti-guztiekin. Kontatzean nire doinuan erresumin pixka bat adierazten saiatu nintzen.

–Arrazoia du zaharrak –erabaki zuen Ivan Matveitxek nirekin hitz egiterakoan erabili ohi zuen zakartasunaz–. Jende praktikoa gustatzen zait niri,; zalantzati ezti-jarioak ezin ditut jasan. Prest nago, hala ere, zure zerbitzu-betekizunetako ideia hori guztiz zentzugabea ez dela aitortzeko. Informazio asko eman dezaket, izan ere, bai zientziaren ikuspegitik bai moralaren ikuspegitik. Orain, ordea, espero ez zen ikuspegi berri bat hartzen du denak, eta ez du merezi soldatagatik bakarrik gestioak egiterik. Entzun arretaz. Eserita zaude?

–Ez, zutik nago.

–Ba, eseri nonbait, berdin dio lurrean bada ere, eta entzun erne.

Erremindurik, aulki bat hartu eta danbateko batez utzi nuen berriro lurrean, amorraturik.

–Entzun –hasi zen, aginduz–, gaur sekulako jendetza etorri da ikustera. Arratsean ez zegoen lekurik ere, eta polizia etorri da ordena jartzera. Zortzietan, hau da, ohi baino lehen, jabeari beharrezkoa iruditu zaio saltokia ixtea eta erakusketa moztea, bildutako dirua zenbatzeko eta biharko erosoago prestatzeko. Badakit bihar feria bete-betea izango dela hemen. Horrela bada, uste izatekoa da hemen azalduko direla hiriburuko jende ikasi guztiak, goi-mailetako andre guztiak, atzerriko herrialdeetako enbaxadoreak, abokatu eta magistratuak, eta gainerakoak. Gehiago: gure inperio zabal eta jakin-min honetako probintzia ugarietatik hasiko da jendea etortzen. Horren ondorioz, den-denen begien bistan egongo naiz, eta ezkututik bada ere, denen ahotan egongo naiz. Jendeari irakasten hasiko naiz. Esperientziak irakasita, gogo-handitasunaren eta patuaren aurrean etsipena izatearen eredia izango naiz. Gizadia argitzeko katedra izango naiz, nolabait esateko. Orain bizilekua dudan munstro honi buruz eman ditzakedan datu zientifikoak berak guztiz baliotsuak dira. Eta, horregatik, gertatu zaidanagatik atsekabetu ordez, itxaropen oso-osoaa dut karrerarik distiratsuen egingo dudala.

–Ez zara aspertuko azkenean? –ohartarazi nion maltzurki.

Gauza batek amorrarazten ninduen gehiena: ia erabat utzi ziola pertsona-izendordainak erabiltzeari; hainbestearino zegoen laineza hartuta. Nolanahi ere, horrek guztiak nahastuta nindukan. “Baina zertaz, zer arraioz harrotu ote daiteke txoriburu kaskarin hori! –esaten nuen marmarka, neure golkorako–. Negar egiteko garaia du, ez harrotzeko”.

–Ez! –erantzun zion zorrozki egin nion oharpenari–, zeren gainezka baitatozkit ideia handiak, eta orain baizik ezin amets egin dezaket soseguz gizadi osoaren zoria nola hobetu. Krokodilo honetatik aterako dira orain egia eta argia. Dударik ez dut teoria berri bat asmatuko dudala harreman ekonomikoei buruz eta harrotzekoa izango da, orain arte ezin izan baitut garatu, lanak eta gizarte honetako denbora-pasa hutsalek astirik utzi ez didatelako. Dena gezurtatuko dut eta Fourier berri bat izango naiz. Eta, bide batez, eman dizkiozu zazpi errubloak Timofei Semionitxi?

–Bai, neure patrikatik –erantzun nion, ahotsean neuretik ordaindu nizkiola nabarmentzen saiatuz.

–Egingo ditugu kontuak –erantzun zidan harro–. Soldata jasoko didate, seguru; zalantzarik ez dut; zeren nori jaso behar diote, niri ezpada? Orain sekulako irabaziak aterako dituzte niregandik. Baina goazen harira. Emaztea?

–Elena Ivanovnaz ari zara, ezta?

–Emazteaz? –egin zuen oihu, garrasika ere bai, oraingo honetan.

Zer eginik ez zegoen, harekin! Etsita, baina hortzei kirrinka eraginez berriro, Elena Ivanovna nola utzi nuen kontatu nion. Bukaeraraino entzun ere ez zidan egin.

–Asmo bereziak ditut berari dagokionez –hasi zen, ernegaturik–. Ni hemen famatu egiten banaiz, bera hor famatu izatea nahi dut. Zientzialari, olerkari, filosofo, atzerriko mineralogialari, estatu gizon, denetik joango zaizkio arratsaldean bere saloira, goizean nirekin solastu ondoren. Datorren astetik aurrera arratsero hasi behar du bigirak antolatzen. Nire soldata bikoizturik, aski izan behar luke harrera horietarako, harrera lekaio kontratatuek zerbitzatutako te batera mugatu behar delako, eta kito. Eta han eta hemen nitaz hitz egingo dute. Aspalditik nengoen irrikatan jende guztiak nitaz hitz egiteko aukera noiz iritsiko, baina nire ospe urriak eta nire laneko maila apalak ez zidaten uzten. Orain, berriz, lortuta dago hori dena, krokodilo baten mokadu arrunt bati esker. Nire hitz bakoitza entzungo da, esaera bakoitza hausnartuko, ahoz aho zabalduko da, argitaratuko da. Erakutsiko diet nor naizen! Ulertuko dute azkenean nolako dohainak utzi dituzten galtzen krokodilo baten errailetan. “Gizon hau izan zitekeen ministro atzerrian eta baita erreinu bat gobernatu ere”, esango dute batzuek. “Eta gizon honek ez zuen gobernatzen atzerriko erreinurik” –esango dute beste batzuek. Zeren zertan, zertan naiz ni Garnier-Pagés edo dena delako hori baino gutxiago? Emazteari nire pendant<sup>10</sup> izatea dagokio; nik adimendua, hark edertasuna eta adeitasuna. “Emakume ederra da; horregatik da haren emaztea”, esango dute batzuek. “Emakume ederra da, haren emaztea delako”, zuzenduko diete besteek. Badaezpada ere, Elena Ivanovnak eros dezala bihar bertan Andrei Kraievskiren zuzendaritzapean argitaratzen ari den hiztegi entziklopedikoa, edozein gairi guruz hitz egiteko kapaz izan dadin. Irakur dezala batez ere “San Petersburgoko Berriak” egunkariko premier politique<sup>11</sup> eta erka dezala “Ilea” egunkarikoarekin. Iruditzen zait krokodiloaren jabea ados egongo dela aldian behin krokodiloa eta biok emaztearen saloi distiratsura eramateko. Aska batean egongo naiz egongela bikainaren erdian eta goizetik prestatuta eramango ditudan hainbat ateraldi jaulkiko ditut. Estatu-gizonari nire proiektuen berri emango diot; olerkariarekin bertsotan hitz egingo dut; andreekin asmotsua eta galaniatsua izango naiz, beren senarrentzat arriskurik ez dudanez. Gainerako guztientzat patuaren eta probidentziaren nahiaren aurrean eraman onekoa izatearen eredia izango naiz. Emaztea literaturako dama distiratsua bihurtuko dut; aurrera bultzatuko dut eta jendaurrean azalaraziko dut; nire emaztea den aldetik, dohainik handienez jantzia izan behar du eta Andrei Alexandrovitx zuzen onez gure Alfred de Musset errusiarra deitzen duten bezala, arrazoi handiagok deituko dute hura gure Eugenia Tour errusiarra.

Aitortu beharra dut, burugabekeria haiek guztiak betiko Ivan Matveitxekin nahikoa egokitzen baziren ere, hala eta guztiz ere sukarra ote zuen eta eldarnioka ari ote zen bururatu zitzaidala. Betiko Ivan Matveitx normal berbera zen, baina gauzak hogeitaz handitzen zituen beira batetik begiratuta.

–Adiskidea –galdetu nion–, horrela luzaro bizitzea espero al duzu? Eta esadazu, oro har, osasunez ongi zaude? Nola jaten duzu, nola lo egiten duzu, nola hartzen duzu arnasa? Zure laguna naiz, eta ados egongo zara gertaera hau naturaz gaindikoezia dela, eta nire jakin-mina naturalegia dela horrenbestez.

<sup>10</sup> Apaingarri (Jatorrizkoan frantsesez).

<sup>11</sup> Albiste politikoei buruzko iritzia (Jatorrizkoan frantsesez).

–Funtsik gabeko jakin-mina, beste ezer ez –erantzun zidan, dotrina eman bezala–, baina kontentatuko zaitut. Munstro honen erraietan nola egokitu naizen galdetzen didazu? Hasteko, krokodiloa hutsik dago erabat; gauza harrigarria. Barrena gomaz egindako zaku erraldoi huts bat bezalakoa du, Gorojovaia-n, Morskaia-n eta, oker ez banago, Voznesenski hiribidean ere saltzen dituzten kautxuzko produktu horietakoen antzeko batez egina. Pentsa, nola kabituko nintzateke bestela hemen barruan?

–Benetan? –hots egin nuen, ulertzekoa den harridura batez–. Krokodilo osoa hutsik dago hortaz?

–Erabat –baietsi zuen Ivan Matveitxek zorrozki eta hotsandikiro–. Eta naturaren beraren legeen arabera egokituko zen honela, seguru asko. Krokodiloak hagin zorrotzez hornitutako ahotzar bat eta ahoaz gainera isats luze-luze bat baizik ez du; hori da dena, zehazki esateko. Bi mutur horien arteko tartean leku huts bat dago, kautxuaren gisako zerbaitez inguratua; kautxua izango da, gainera, seguru asko.

–Eta saihetsak, urdaila, hesteak, gibela, bihotza? –moztu nion, amorraturik.

–E-ezer ez, horrelakorik ezertxo ere ez, eta, izan ere, sekula ez da izan seguru asko. Bidaiatzaile arrunten fantasia alferrak dira horiek guztiak. Oraintxe bertan, odoluzkietarako kuxinak nola puzten diren, halaxe puzten dut nik krokodiloa nire gorputzaz. Ez da sinestekoa zein elastikoa den. Zeu ere, etxeko adiskide gisa, koka zintezke nire ondoan, nahi izanez gero, bihotz zabala bazenu, eta, zu hemen egonda ere, lekua sobera izango litzateke. Elena Ivanovna hona ekartzea pentsatzen ari naiz, gainera, besterik ezin baldin bada. Krokodiloaren egitura huts hau izadi-jakintzak dioenarekin guztiz ados dator, gainera. Zeren, eman dezagun, adibidez, krokodilo berri bat egin beharko litzatekeela; segituan planteatuko litzateke galdera: zein da krokodiloaren ezaugarri nagusia? Erantzuna argi dago: gizakiak irenstea. Nola eman krokodiloari gizakiak irensteko moduko egitura? Erantzuna argiagoa da oraindik: hutsa egin. Fisikak aspaldi erabakia du izadiak higuin duela hutsunea. Horrela, bada, krokodiloaren barrenak hutsik egon behar du, hutsunea higuin izan dezan eta, horrenbestez, etengabe irensten eta eskura duen guztiaz betetzen aritu dadin. Horra, krokodilo guztiek gizakiak zergatik irensten dituzten, zentzuzko arrazoi bakarra. Gizakiaren egituran ez da horrelakorik: zenbat eta hutsago gizakiaren burua, esate baterako, orduan eta gogo gutxiago hura betetzeko, eta horixe da arau orokorraren salbuespen bakarra. Hori dena eguna bezain argi ikusten dut orain; neure adimenaren eta esperientziaren bidez atera dut hori dena, izadiaren sakoneko erraietan, haren erretortan nagoelako eta haren pultsua entzuten dudalako, nolabait esateko. Etimologia bera ere ados dator nirekin, zeren krokodiloaren izenak berak gose amorratua esan nahi baitu. Krokodilo, Crocodillo, italiar hitza da, inondik ere, hitz modernoa, beharbada Egiptoko faraoien garaietatik datorrena eta, seguru asko, croquer erro frantsesetik dator; eta horrek jan, irentsi eta, oro har, sabeleratu esan nahi du. Hau dena Elena Ivanovnaren saloian, aska honetan hara eramanda, jendaurreko lehenengo hitzaldi gisa azaltzeko asmoa dut.

–Heste-aringarriren bat hartu beharko zenuke, adiskidea! –egin nion oihu, nahi gabe. “Sukarra du, sukarra, sukarretan dago!” errepikatzen nuen nire baitarako, izaturik.

–Tentelkeriak! –erantzun zidan destainez–, oraingo egoera honetan oso deserosoa izango litzateke, bestalde. Banuen susmoa, gainera, heste-aringarria aipatu behar zenidala.

–Adiskidea, nola... mola moldatzen zara hor jateko? Bazkaldu duzu gaur, behintzat?

–Ez, baina beteta nago, eta seguruenera hemendik aurrera inoiz ez dut janaririk hartuko. Ulertzekoa da, gainera: krokodiloaren barrualde guztia betetzen dudanez, aserik daukat beti. Orain urteetan eduki daiteke jaten eman gabe. Beste alde batetik, nitaz asebetterik, normala da bere gorputzeko bizigai-zuku guztiak niri ere helaraztea; gauza bera gertatzen zaie gauean beren gorputz osoa eta forma guztiak haragi-xerra gordinez estalita eduki ondoren, goizeko bainua harturik, mardulago, leunago, gustagarriago eta erakargarriago geratzen diren emakume bandera fin batzuei. Horrela, nire buruaz krokodiloa elikatuz, neuk ere janaria jasotzen dut harengandik ordainez; eta elkar elikatzen dugu, horrela. Baina, krokodilo batentzat ere zaila izango denez ni bezalako gizaki bat digeritzea, bistan dago horrez gainera astun sentitu behar duela urdaila –nahiz eta halakorik ez izan–, eta horra zergatik mugitzen naizen ahal dudan gutxiena, munstroari behar ez den oinazetik ez eragiteko; eta, mugitzeko aukera izanda ere, gizalegeak ez dit uzten horrelakorik egiten. Horixe da oraingo egoera honetan dudan huts bakarra, eta, zentzu alegoriko batean, Timofei Semionitxek arrazoia du hemen nagikerian nagoela dioenean. Baina frogatu beharra dut egonean egonda ere edo, areago, egonean egonda soil-soilik, alda daitekeela gizadiaren zoria. Ideia handi guztiak eta gure egunkari eta aldizkarien norabidea alferkerian zegoen jendeari bururatu zaizkio, zalantzarik gabe; horregatik deitzen zaie kabineteko ideiak, baina zer axola dio hala deitzen bazaie ere! Nik gizarte-sistema oso bat asmatuko dut orain, eta ez duzu sinistu ere egingo zein erraza den! Aski da urrutixeagoko lekuren batean bakartzea, txoko batean edo krokodilo baten barruan, adibidez, begiak ixtea, eta segituan asmatzen duzu paradisu oso bat gizadi osoarentzat. Lehen, hemendik atera zaretenean, hausnartzen hasi naiz eta hiru sistema asmatu ditut dagoeneko, orain laugarrena ari naiz prestatzen. Egia da hasieran dena hankaz gora jarri behar dela; baina krokodiloaren barrutik aise jartzen dira gauzak hankaz gora; areago, krokodiloaren barrutik argiago ere ikusten da, nolabait esateko... Beste alde batetik, ordea, nire egoera honek baditu bere alde txarrak ere; baina gutxiago dira: krokodiloaren barrena heze samarra da, likatsua bezala, eta, horrez gainera, goma-usain pixka bat du, nire iazko eskapaloiena bezalakoa, zehazki. Baina hori da dena; horrez gainera beste akatsik ez du.

–Ivan Matveitx –moztu nion–, horiek denak gauza harrigarriak dira, eta kosta egiten zait sinistea. Eta, egiaz ez duzu, egiaz, hemendik aurrera gehiago jateko asmorik?

–Zer ergelkeriak kezkatzen zaitu txori-buru arduragabe hori! Nik ideia handiez hitz egiten dizut, eta zuk... Jakin ezazu elikagai aski dudala inguratzen nauen gaua argitzen didaten ideia handiekin. Munstro honen jabe amultsua, nolana ere, ados jarri da bere mutter amultsuarekin, eta gaur arratsaldean beren artean erabaki dute goizero-goizero sartuko dutela krokodiloaren ahotik metalezko hodi oker bat, turuta baten moduko gauza bat, hartatik kafea edo salda bat ogi-zopekin xurgatu ahal izan dezadan. Hodi hori eskatua dute dagoeneko hemen inguruan, baina behar ez den luxua iruditzen zait. Mila urte gutxienez bizitzea espero dut, krokodiloak horrenbeste bizi direla egia bada; eta, bide batez, oraintxe gogoratu dut: begira ezazu bihar bertan historia naturalen batean eta jakinaraziezadazu, zeren baliteke ni oker egotea, krokodiloa beste fosilen batekin nahastuta. Gauza bakar batek kezkatzen nau pixka bat: orain jantzita nagoen bezala, oihalez eta bota luzeekin, garbi dago krokodiloak ezin nauela digeritu. Bizirik nago, gainera, eta, horrexegatik, nire borondate osoaz arbuatzen dut digeritua izatea, ulertzekoa baita jaten den oro bilakatzen dena bilakatu nahi ez izatea,

laidogarriegia irudituko bailitzaidake. Badut beldur bat, ordea: mila urteko epe batean nire lebita, Errusian egina baita tamalez, ustel daitekeela, eta orduan ni, jantzirik gabe geraturik, nire haserre guztiagatik ere, has naitekeela digeritzen; eta egunez inola eta ezergatik utziko ez banio ere, gauetz, lotan nagoen bitartean, borondateak gizakiari alde egiten dionean, gerta dakidake patata batek, talo batek edo txahalki puska batek izaten duten zori laidogarri berbera izatea. Ideia horrek amorrubizitan jartzen nau. Arrazoi bakar horrek aski izan beharko luke tarifak aldatzeko eta ingeles ehunen inportazioa bultzatzeko, sendoagoak baitira, eta luzaroago eutsiko baitiote horrenbestez naturaren erasoari, krokodilo baten barrura eroriz gero. Lehenengo aukeran azalduko diot nire ideia hau edozein estatu-gizoni eta baita Petersburgoko gure egunkarietako komentarietari ere. Zabal dezaten. Espero dut ez izatea niregandik hartuko duten ideia bakarra. Aurrez ikusten dut goizero pilatuko direla samaldaka nire inguruan, beren erredakzioek ordaindutako errublo laurdenarekin, bezperako telegramei buruz dudan iritzia jasotzeko prest. Labur-labur esateko, arrosa-kolorekoa agertzen zait etorkizuna.

“Kalentura, kalentura!” esaten nuen marmarka nire baitarako.

–Baina askatasuna, adiskidea? –esan nion, bere iritzia ongi ezagutzeko–. Zeren kartzelan baitzaude, nolabait esateko, eta askatasunaz gozatzeak izan behar du gizaki ororen helburua.

–Zu ergela zara –erantzun zidan–. Jende basatiari independentzia gustatzen zaio, jende jakintsuak ordena nahi du, eta ordenarik gabe...

–Ivan Matveitx, barkatu, mesedez!

–Isildu eta entzun! –egin zidan garrasi, moztu niolako haserre–. Inoiz ez naiz orain bezala goratu espirituz. Nire aterpe estu honetan gauza batek baizik ez nau beldurtzen: aldizkari potoloetako literatura-kritikariak eta gure egunkari satirikoen iseka-txistuek. Beldur naiz bisitari buru-arinek, ergelek eta bekaiztiak eta, oro har, nihilistek ez ote nauten barregarri utziko. Baina hartuko ditut nire neurriak. Irrikatan nago bihar ikusleen erantzuna ezagutzeko, egunkarien iritzia batez ere. Ekarrri bihar bertan egunkariak diotenaren berri.

–Oso ongi; egunkari pila bat ekarriko dut bihar bertan.

–Bihar goizegi izango da oraindik egunkarien iritziak itzaroteko, iragarkiak laugarren egunean baizik ez dira agertzen eta. Baina, gaurtik aurrera, etorri arratsero patrioko sarreratik sartuz. Zu idazkari gisa hartzeko asmoa dut. Egunkariak eta aldizkariak irakurriko dizkizazu eta nik nire gogoetak diktatu eta mandatuak emango dizkizut. Telegramak ez ahaztu, batez ere. Europatik iritsitako telegrama guztiak egunero hemen egon daitezten. Baina aski da; logalea izango duzu dagoeneko, seguru. Zoaz etxera eta ez pentsatu kritikari buruz esan dizudanaz: ez dit beldurrik ematen, bera ere egoera kritikoa dago eta. Askia da jakintsua eta onbidetsua izatea, eta zalantzarik ez dago zutoi baten gainean jarriko zaituztela. Sokrates ez banaiz, Diogenes izango naiz, edo biak batera, eta horixe izango dut etorkizunean gizadiarekiko eginkizuna.



Horrelako modu funsgabe eta gogaikarrian (kalenturak eraginda, egia esan) prestatzen zen Ivan Matveitx bere iritziak nire aurrean azaltzera, esaera zaharrak dioen bezala, sekretu bat gordetzeko gauza ez diren ganora gutxiko emakume horien antzera. Krokodiloari buruz jakinarazi zizkidan gauzak oso susmagarriak iruditzen zitzaizkidan, gainera, guztiak. Zeren, nola liteke krokodiloa barrutik erabat hutsik egotea? Apustu egingo nuke honetan harrokeriaz ari zela eta ni apaltzeko asmoz ere bai, partez. Egia da gaixorik zegoela eta gaixoei ez zaiela kontra egin behar; baina ez nau lotsatzen aitortzeak Ivan Matveitx inoiz ezin izan dudala onez eraman. Haurtzarotik hasita, nire bizitza guztian libratu nahi izan dut harengandik eta ezin izan dut haren zaindaritzapetik alde egin. Mila bider nahi izan dut harengandik modu txarrean aldendu, eta beti eraman izan nau zerbaitek berriro harengana, oraindik ere hari zerbait frogatzeko eta mendekuren bat hartzeko itxaropenen bat banu bezala. Ondo gauza bitxia adiskidetasuna! Biribilki esan dezaket nirea aiherkandez egina zela hamarretik bederatzi. Oraingo honetan, ordea, sentimendu handiz agurtu ginen elkarrengandik.

–Zure laguna oso gizon buruduna –esan zidan surmurka alemanak, alde egiterakoan nireganaturik; denbora guztian arreta handiz egon zitzaigun gure solasa entzuten.

–À propos<sup>12</sup> –esan nion–, ez ahazteko, zenbat eskatuko zenuke zure krokodiloagatik, norbaitek erosi nahiko balizu?

Ivan Matveitx, galdera entzunik, jakin-minez geratu zen erantzunaren zain. Bistan zegoen ez zitzaiokeela gustatuko alemanak gutxi eskatzea; nahiko era bitxian leundu zuen eztatia, behintzat, nire galdera entzunda.

Hasieran alemanak ez zuen entzun ere egin nahi; haserretu eta guzti egin zen.

–Ez ausartu inor nire krokodiloa erosten! –egin zuen oihu amorruz eta karramarro egosi bat bezalaxe gorritu zen–. Ni ez nahi krokodilo saldu. Milioi bat taler ere ez hartuko krokodilogatik. Gaur ehun eta hogeita hamar taler hartu publikumak eman, bihar hamar mila taler kobratu, eta gero ehun mila taler kobratuko egunero sarrerak. Ez nahi krokodilo saldu!

Ivan Matveitxek barretxo bat eta guzti egin zuen hark ematen zion pozagatik.

Gogo txarrez, hotz eta zuhurtziaz –zeren lagun baten egiazko betebeharra ari bainintzen betetzen – aleman zentzugabeari aditzera eman nion bere kalkulu haiek ez zirela guztiz zehatzak, zerren egunero ehun mila errublo irabazten baldin bazituen, laugarren egunerako Petersburgo osoa igaroa izango baitzen handik eta gero nori kobraturik ez baitzen izango, eta bizitza eta heriotza jainkoaren eskuan daudela eta krokodiloa leher zitekeela gauzaren baten edo bestearengatik eta Ivan Matveitx gaixotu eta hil zitekeela eta abar eta abar.

Alemana pentsatzen aritu zen.

<sup>12</sup> Jatorrizkoan frantsesez: Hortaz ari garenez.

–Botikatik tantak ekarri eta emango –esan zuen, erabakita–, eta zure laguna ez hilko.

–Tantak, ongi da –esan nion–, baina ez ahaztu has daitekeela auzi bat. Ivan Matveitxen emazteak eska dezake bere legezko senarra itzultzea. Zuk aberastu egin nahi duzu, baina pentsatu al duzu Elena Ivanovnari errentaren bat izendatzerik?

–Ez, ez pentsatu! –erantzun zidan alemanak zalantzarik gabe eta gogor.

–Ez, ez pentsatu! –berretsi zuen mutterrak, are amorrus.

–Orduan, ez al da hobe zuretzat orain kolpe batez zerbait hartzea, asko-asko ez baina bai seguru eta finkoa, zoriaz fidatzea baino? Esan behar dizut, gainera, ez dizudala galdetzen jakiteko gogo hutsagatik.

Alemanak mutterrari heldu eta harekin urrundu zen, bildumako tximino guztietan handien eta itsusienaren kaiola zegoen txokoan biek hitz egiteko.

–Orain ikusiko duzu! –esan zidan Ivan Matveitxek.

Niri dagokidanez, irrikatan nengoen une horretan, lehenik eta behin alemanari jipoi bat emateko, bigarren, mutterrari are jipoi handiagoa emateko, eta hirugarrenik, Ivan Matveitxi inon den jipoirik handiena emateko, bere harrokeria mugagabeagatik. Baina horrek guztiak ez zuen inolako garrantzirik aleman diru-gosearen erantzunaren aldean.

Bere mutterrarekin nahikoa hitz egin ondoren, berrogeita hamar mila errublo eskatu zituen bere krokodiloarengatik, Estatuaren zorretako obligazioetan, zozketarekin, gehi harrizko etxe bat Gorokhovaia kalean, bere botikarekin, eta, horrekin batera, errusiar koronelaren maila.

–Ikusten! –egin zuen oihu, garaipenez, Ivan Matveitxek–, bai nik esan! Koronela izendatzeko zentzugabeko azkeneko eskakizun hori kenduta, arrazoi oso-osoa du, oso ongi ohartzen baita zer balio duen orain erakusten ari den piztia honek. Ekonomiaren printzipioa beste ororen aurretik!

–Barkatu! –garrasi egin nion alemanari sutan piztuta–, zer dela-eta izendatu behar zaituzte koronel? Zer balentria egin duzu, zer zerbitzu bete duzu, zer aintza militar merezi izan duzu? Ez al zara, bada, burugabe hutsa, honen guztiaren ondoren?

–Burugabea! –esan zuen alemanak garrasika, mindurik–, ez, oso gizon buruduna ni, eta zu eroa! Nik

merezi koronel, zeren krokodilo erakusten, barruan hofrath<sup>13</sup> bizirik dagola, eta erruziarrek ezin erakutsi krokodilo barruan hofrath bizirik dagola! Ni oso gizon buruduna, eta koronel izan nahi dut asko!

–Agur, bada, Ivan Matveitx! –egin nion oihu, amorrak dardaratan, eta ia lasterka atera nintzen krokodiloarenetik. Beste minutu bat, eta neure buruari ezin eutsiko niola sentitzen nuen. Bi ergel haien itxaropen zentzurik gabeak ezin eramanezkoak ziren. Haize hotzak freskatu ninduen eta haserrea zertxobait baretu zidan. Azkenean, alde batera eta bestera hamabosten bat aldiz tu egin ondoren, zalgurdi bat hartu nuen, etxera joan nintzen, erantzi eta ohe gainean etzan nintzen. Haren idazkari bihurtzea zen amorragarriena. Zaude han, hiltzeraino aspertuta arratsero, egiazko lagun baten betebeharrak betetzen! Neure buruari jipoi bat emateko prest nengoen, eta, horixe, kandela itzali eta mantaz estali ondoren, ukabilkadaz joka aritu nintzen buruan eta gorputzeko beste leku batzuetan. Horrek zertxobait baretu ninduen eta lo hartu nuen azkenean, nahiko lo sakona, oso nekatuta bainengoen. Tximinoekin ametsetan igaro nuen gau osoa, baina goiz aldera, Elena Ivanovnarekin ere amets egin nuen...

<sup>13</sup> Alemanierazko hitza: funtzionario.

## IV

Tximinoekin, krokodiloarenean armairuan giltzapetuta zeudelako egingo nuen amets, nik uste; baina Elena Ivanovnarena oso bestelako kontua zen.

Gauza bat esango dut, hasteko: dama hura maite nuen; baina albait lasterren esango dut —albait lasterren esan ere— oker uler ez dadin: aita batek bezala maite nuen, ez gehiago ez gutxiago. Ondorio hori ateratzen dut askotan gertatzen zitzaidalako hari bere burutxoan edo masaila arrosa-kolorekoetan musu emateko ezin eutsizko gogoia sentitzea. Eta gogo hori betetzera inoiz irisi ez banintzen ere, aitortu beharra du ez niokeela uko egingo ezpainetan ere musu emateari. Eta ez ezpainetan soilik, baizik eta baita irribarre egiten zuenean beti ere perlatxo berdin-berdinezko ilara bat balira bezala hain xarmagarri agertzen zitzaizkion hortz txikitxo haietan ere. Oso-osoa maiz egiten zuen irribarre. Ivan Matveitxek “nire tuntun maitea” deitzen zion bere maitasun-adierazpenezko aldietan; deitura guztiz zehatza eta bereizgarria, hain zuzen. Bonboi-emakumea, horixe zen. Horregatik, ez dut batere ulertzen nola bururatu zitzaion orain Ivan Matveitxi berari bere emaztea gure errusiar Eugenia Tour baten moduan imajinatzea. Nolanahi dela ere, tximinoak kanpoan utzita, guztiz sentipen atsegina utzi zidan, eta, goizeko tea hartu bitartean buruan bezperako gertaera guztiak berrikustean, berehalaxe Elena Ivanovnaren etxean sartu-irten bat egitea erabaki nuen, lanerako bidean, egin beharra baineukan, gainera, etxeko adiskidea nintzenez.

Logela ondoko gelatxo ñimiño batean hartu ninduen Elena Ivanovnak —egongela txikia deitzen zioten, nahiz eta egongela handia ere txikia zuten—, tea hartzeko mahaitxo baten aurrean sofatxo dotore batean eserita goizeko jantzi erdi-gardenez jantzita, katilutxo ñimiño batetik kafea hartuz, galletatxo ñimiño bat hartan bustiz. Liluratzeko ederra zegoen, baina bere gogoetetan baitaratuta ote zegoen iruditu zitzaidan.

—A, zu zinen, maltzur hori! —irribarre arretagabe batez hartu ninduen—; eser zaitez, buru-arin hori, edan kafe bat. Tira, zer egin zenuen bart gauean? Mozorro-dantzara joan zinen?

—Zer, zu izan zinen? Ni ez naiz joatean... bart arratsean gure presoari bisita egitera joan nintzen, gainera...

Hasperen egin eta gizalegeak agintzen zuen aurpegia jarri nuen kafea hartzean.

—Nor? Zein preso? A, bai! Gaixoa! Eta nola dago, aspertzen da? Badakizu... gauza bat galdetu nahi nizuke... Orain dibortzioa eska dezaket, ezta?

—Dibortzioa! —esan nion oiheri eginez, biziki haserretura, eta gutxiengatik ez nuen isuri kafea. “Beltzaran koskorraren kontua duk hau!” —pentsatu nuen amorraturik nire baitarako.

Zeren bazen beltzarantxo bibotetxodun bat, eraikuntzako bulegoan lan egiten zuena, sarritxotan bisita egiten ziena eta Elena Ivanovnari barre eragiten bereziki trebea zena. Aitortu beharra dut

gorroto niola, eta zalantzarik ez zegoen bezperan Elena Ivanovnarekin topatzeko moldatu zela, mozorro-dantzan edo hementxe, beharbada, eta ergelkeria pila bat esan ziola!

–Baina... –hasi zen botatzen kolpetik Elena Ivanovna, nonbait ikasia balu bezala–, krokodiloaren barruan geratu behar al du orain, beharbada bere bizitza guztian berriro itzuli gabe, eta ni hemen haren zain? Senarrak etxean bizi behar du, eta ez krokodilo baten barruan...

–Gertatu dena ezin aurreikusia zen, ordea –hasi nintzen, guztiz naturala zen urduritasun batez.

–A, ez, ez hasi hitz egiten, ez dut nahi, ez dut nahi! –egin zuen garrasi, bat-batean erabat haserreturik–. Zu beti nire kontra, gaizto hori! Zurekin ez dago ezer egiterik, ez duzu aholku bat ematen! Pertsona arrotzek ere esaten didate dibortzioa emango didatela, Ivan Matveitxek orain soldatarik jasoko ez duelako.

–Elena Ivanovna! Zuregandik entzun behar hori? –esan nion oihuz, doinu erdiragarri batez–. Zein izan da horrelakorik esan dizun pertsona zitala! Gainera, dibortzioa ezin da inola ere lortu soldata bezalako arrazoi hutsal batengatik. Eta Ivan Matveitx gaixoa, gaixoa halakoa, munstroaren erraietan egonda ere, zuregatik maitasunez sutan dagoela. Areago, azukre-koskor bat bezalaxe ari da urtzen maitasunaren maitasunez. Bart gauean, adibidez, zu mozorro-dantzan jostatzen ari zinen bitartean, berak aipatu zuen, besterik ezin bazen, bazitekeela zu, legezko emaztea zarenez, krokodiloaren barrura, barren-barrenera, bere ondora eramatea erabakitzea, birentzat ez ezik, hirurentzat ere aski leku badagoela kontuan harturik, batez ere.

Eta, ondoren, bezperan Ivan Matveitxekin izandako solasaren zati interesgarri hura guztia kontatu nion segidan.

–Nola, nola! –egin zuen oihu, txunditurik–. Neu ere Ivan Matveitxekin hara barrura sartzea nahi duzu? Bururatzea ere! Eta nola sartu behar dut, kapela eta krinolina eta guzti? Hori burugabekeria, jaunak! Zer itxura izango nuke nik han sartuta, norbait begira baldin badago batez ere, mesedez... Barregarria da! Eta zer jan han?... eta... eta... nola moldatu... ai, Jaungoikoa, zer asmatu duten hauek!... Eta zer entretenimendu izango da han?... Barruan goma-usaina dagoela diozu? Eta zerbaitengatik haserretzen bagara, zer, ondoan geratu beharko nuke hala ere? Puah!, bai nazkagarria!

–Ados nago, ados nago arrazoi horiekin guztiekin, Elena Ivanovna maite hori –moztu nion, arrazoia bere alde duela sentitzen duenean betiere gizonaz jabetzen den suhartasun ulergarri horretaz nire arrazoiak adierazten ahaleginduz–, baina honetan guztian bada aintzat hartu ez duzun gauza bat; ez duzu aintzat hartu, hara joatera gonbidatzen zaituenez, ezinezkoa zaiola, horrenbestez, zu gabe bizitzea; horrek erakusten dizu bere maitasun kartsu, leial, saiatua... Maitasuna ez duzu aintzat hartu, Elena Ivanovna maitea, maitasuna!

–Ez dut nahi, ez dut nahi, ez dut ezer entzun nahi! –bota zuen, bere eskutxo politak, arrosa-koloreko azkazal zepilatu berriak distiraz zituela, astinduz–. Nazkagarria! Negar eragingo didazu oraindik. Sar zaitetz zeu, atsegin baduzu. Laguna ez zara, bada; zoaz haren ondora, adiskidetasunagatik, eta bizitza

guztia izango duzue zientzia aspergarri horretaz eztabaidan aritzeko...

–Ez duzu hipotesi horretaz zertan barre eginik –moztu nion, serio, emakume kaskarin hari–, Ivan Matveitxek egin dit dagoeneko berekin elkartzeko gonbita. Zu, jakina, zure betebeharrak eraman beharko zintuzke hara; ni eskuzabaltasunak baizik ez; baina krokodiloaren harrigarritzko malgutasunaz hitz egiten ari zitzaidala, oso garbi eman zidan aditzera ezen ez zuek biak bakarrik, baizik eta baita neu ere, etxeko adiskidea naizen aldetik, koka nintekeela zuekin batera, hirurak batera, nik hala nahi izanez gero, noski, eta horregatik...

–Nola hirurak batera? –egin zuen garrasi Elena Ivanovnak, txundituta begiratzen zidalarik. Orduan gu... elkarrekin egongo ginateke hirurak batera? Ja, ja, ja! Bai ergelak zaretela zuek biak! Ja, ja, ja! Denbora guztian zimikoka arituko nintzaizuke, gaizto hori, ja, ja, ja!

Eta, sofaren bizkarraren kontra etzanik, malkoak isurtzeraino hasi zen algaraka. Hura dena, malkoak zein barrea, hain zen xarmagarria non ezin izan bainion eutsi neure buruari, eta suharki hasi nintzaion eskutxoetan musu ematen, eta hark ez zidan aurka egin, nahiz eta belarritik arinki tira egin, adiskidetze-seinale gisa.

Gero alaiago sentitu ginen biak, eta zehazki azaldu nizkion bezperan Ivan Matveitxek adierazitako plan guztiak. Arratsero saloia zabalik eduki eta bigirak egiteko ideia asko gustatu zitzaion.

–Baina jantzi berri asko beharko ditut –ohartarazi zidan–; eta horretarako bere soldatatik ahalik eta diru kopururik handiena eta ahalik eta lasterren bidali beharko dit Ivan Matveitxek... Baina... baina... –jarraitu zuen pentsakor–, nola ekarri hona bere askan? Barregarria izango da. Ez dut nahi nire senarra aska batean erabiltzerik. Lotsatu egingo nintzateke gonbidatuen aurrean... Ez dut nahi, ez, ez dut nahi.

–Eta, bide batez, ahaztu baino lehen, bart gauean Timofei Semionitx bisitatzera etorri zitzaizun?

–Bai, etorri zen; kontsolatzera etorri zen, eta pentsatzen ahal duzu, kartetara jolasten aritu ginen denbora guztian. Berak gozokiak jokatzen zituen eta, nik galtzen banuen, eskuan muin ematen zidan. Hura pikaroa; pentsa, ia-ia joan zen nirekin mozorro-dantzara. Benetan!

–Beroaldia! –oharpena egin nuen–, nor ez litzateke liluratuko zurekin, seduzitzaile horrekin!

–Hasi zara zu, zure konplimenduekin! Zaude, zimiko bat egingo dizut agurtzeko. Zimikoak ezin hobeto ematen ikasi dut. Zer moduz honela! Eta, bide batez, esadazu, Ivan Matveitxek asko hitz egin zizun bart gauean niri buruz?

–Ezzz, ez asko-asko... Aitortuko dizut, une honetan gizadi osoaren zoriaz ari da pentsatzen batez ere, eta nahi du...

–Ba, hor konpon! Horrekin aski dut! Aspergarria da, seguru. Bisitaren bat egin beharko diot. Bihar joango naiz, hutsik egin gabe. Baina gaur ez; buruko mina dut, eta hainbeste ikusle izango ditu, gainera... Emaztea naizela esango dute, lotsatu egingo naute... Agur. Gaur arratsaldean... joango zara?

–Joango naiz, jakina. Joateko eta egunkariak eramateko esan zidan.

–Oso ongi, beraz. Zoaz eta irakuriezazkiozu. Eta ni ikustera etorri beharrik ez duzu. Ez nago ongi-ongi, eta baliteke bisitaren bat egitera joatea ere. Agur, bada, maltzur hori.

“Beltzarana etortzekoa izango du, nonbait, gaur arratsaldean” –pentsatu nuen.

Bulegoan, jakina, ez nuen aditzera eman nolako kezkek eta nekeek jaten ninduten barrutik. Berehala ohartu nintzen, ordea, gure egunkaririk progresistenetako batzuk bereziki bizkor aldatzen zirela eskutik eskura goiz hartan nire lankideen artean eta aurpegiera guztiz serioz irakurtzen zituztela. Lehendabizi iritsi zitzaidana “Orria” izan zen, joera jakin zehatzik gabeko egunkaritzoa, humanista soil-soilik, oro har hartuta, eta horrexegatik mespretxuz hartzen genuena, baina irakurri egiten genuena hala ere. Hona zer irakurri nuen, harridura puska batez:

“Atzo guztiz zurrumurru bitxiak zabaldu ziren eraikin bikainez apaindutako gure hiriburu zabal honetan. N. jauna, goi mailako gizarteko gourmet ezaguna, Borelen eta ...-ko klubeko sukaldeaz asperturik seguru asko, Passageko eraikineran joan zen, hiriburura ekarri berria duten krokodilo erraldoi bat erakusten zuten tokira, eta bazkaltzeko presta ziezaioten eskatu zuen. Jabearekin tratua eginik, hantxe bertan hasi zen bizirik jaten (ez jabea, jakina, aleman guztiz baketsu eta arretatsu bat, haren krokodiloa baizik) bere labanatzat zati zukutsuak ebaki eta laster bai laster irentsiz. Poliki-poliki krokodilo osoa desagertu zen gizenkote haren erraietan, eta hala ere prest zegoen ikneumon<sup>14</sup> bat, krokodiloaren ohiko laguna izan ohi dena, jateko, hura ere bestea bezain dasta onekoa izango zelakoan. Gu ez gaude inola ere produktu berri horren kontra, aspaldidanik baita famatua atzerriko gourmeten artean. Hain zuzen ere, lehendik ere iragarria genuen guk hau gertatu behar zuela. Ingeles lordek eta bidaiariak saldoka harrapatzen dituzte krokodiloak Egipton eta xerratan jaten dute munstroaren bizkarra, ziapez, tipulaz eta patataz lagundurik. Frantsesek, Lessepsekin hara iritsi direlarik, nahiago izaten dituzte hankak brasatan erreta; egin, ingelesak amorrarazteko egiten dute hori, eta haiek barre egiten diete. Gurean batera zein bestera estimatuko lirateke, seguru asko. Gure aldetik, asko pozten gaitu industriaren adar berri honek, horren behar-beharrean baitzegoen gure aberri indartsu eta askotarikoa. Petersburgoko gourmetaren urdailean desagertutako lehenengo krokodilo horren ondoren, ehunka ekarriko dituzte, seguru, urtea baino lehen. Eta zergatik ez aklimatatu krokodiloa hemen, Errusian? Neva ibaiko ura beste lurraldeetako piztia interesgarri horientzat hotzegia baldin bada, hiriburuan badira urmaelak eta hiriaz kanpo badira ibaiak eta aintzirak. Zergatik ez hazi krokodiloak Pargolovo-n, adibidez, edo Pavlovsk-en, edo Moskun Presnensky urmaeletan eta Samotiok-en? Gure gourmetak janari atsegin eta osasungarri batez hornituz gainera, urmael horien inguruan pasieran ibiltzen diren andreen entretenigarri eta haien haurrentzat izadi-jakintzako ikasgai izango lirateke. Krokodiloen larruaz kutxatilak, maletak, toxak eta diru-zorroak egin litezke, eta baliteke merkatariek bereziki estimatzen dituzten mila errubloko

<sup>14</sup> Erdi Aroko usteetan, dragoiaren kidea.

errusiar billete krakatsu horietako bat baino gehiago pausatzea krokodilo-larru tartean. Gai interesgarri honetara behin baino gehiagotan itzuliko garela espero dugu”.

Era honetako zerbait espero nuen arren, abailduta utzi ninduen hala ere berriaren funts eskasak. Nire iritzia norekin partekatu ez jakinik, nire aurrean eserita zegoen Prokhor Savitxengana jo nuen, eta aspalditik begira nuela erreparatu nuen, eta eskuetan “Ilea” zuela, niri uzteko prestatuta baleuka bezala. Hitzik esan gabe nire eskuetatik “Orria” hartu eta “Ilea” ematen zidan bitartean, azkabalaz gogor azpimarratu zuen seguru asko errepararazi nahi zidan artikulua. Prokhor Savitx hori oso gizon bitxia zen: mutil zahar isila, gutako inorekin ez zuen inolako tratu esturik, eta ia inorekin ez zuen hitz egiten bulegoan, beti zuen bere iritzi berezia gauza guztiei buruz, baina ez zuen nahi izaten inorekin partekatu. Bakarrik bizi zen. Gutako ia inor ez zen inoiz haren etxean egon.

Hona zer irakurri nuen “Ilea”-n, esandako lekuan:

Denek dakite progresistak eta humanitarioak garela eta gai honetan Europaren bidetik nahi dugula joan. Hala ere, ordea, gure neke guztiak eta gure egunkariaren ahaleginak gora behera, urruti gaude oraindik “heldutasunetik”, atzo Passagean gertatutako eta guk aurrez iragarrita geneukan gertaera lotsagarriak erakusten duen bezala. Atzerriko jabe bat etorri da hiriburura eta krokodilo bat ekarri du berekin, eta Passagean erakusten hasi da. Gu segituan presakatu ginen gure industriaren adar berri hori, gure aberri indartsu eta askotarikoak hain behar-beharrezkoa duena, agertu izana ospatzera. Horretan, ordea, atzo arratsaldean, lau eta erdiak inguru horretan, non agertu den atzerritar jabearen dendan gizon bereziki gizen bat, mozkorra inondik ere, ordaindu du bere sarrera eta segidan, aurretiko abisurik gabe, krokodiloaren ahoan sartu da; hark, uste izatekoa zen bezala, irentsi beste erremediorik ez zuen izan, bizitzeko senagatik besterik ez bazen ere, eztarrian trabatuta gera ez zekion. Krokodiloaren barruan murgildu bezain laster, ezezagunak lo hartu zuen. Ez atzerritar jabearen oihuek ez bere familiartekoen garrasiek, ez poliziari deitzeko mehatxuek ez zioten ikararik txikiena ere eragin. Krokodiloaren barrutik algarak eta zume-zigorra erabiliko zuelako promesa (sic!) baizik ez zen entzuten, eta ugaztun gaixoak, horrenbesteko puskatzarra irenstera beharturik, alfer-alferrik isurtzen zituen malkoak. Bisitari gogaikarria okerragoa da tartariarra baino, esan ohi den bezala, baina atsotitza gorabehera, bisitari lotsagabeak ez zuen irten nahi. Ez dakigu nola esplikatu gure heldugabetasuna frogatzen duten eta atzerritarren aurrean lotsagarri uzten gaituzten gertaera basatiok. Errusiarren izaeraren ausarkeriak ederki aurkitu du zertan enplegatu. Galdetu daiteke, zer nahi ote zuen inork gonbidatu gabeko bisitari horrek? Ostataleku bero eta eroso bat? Baina hiriburu honetan badira hainbat etxe, eder askoak, etxebizitza ondo merkeak eta erosoak dituztenak, ura Neva ibaitik jasotzen dutenak eta eskaileretan gas-argia dutenak eta askotan atezaina eta guzti dutenak, jabeak ordainduta. Etxeko abere batekiko tratu horren basakeriara erakarri nahi dugu orobat gure irakurleen arreta: kanpoko krokodilo batentzat nekeza da, uste izatekoa den bezala, halako masa handi bat kolpetik digeritzea, eta orain han datza, mendi bat bezala puztuta, ezin eramanezko sufrikariotan heriotza noiz iritsiko zaion. European Justiziak aspaldidanik pertsegitzen ditu etxeko abereei tratu ankerra ematen dietenak. Guk, berriz, europar argiteria, europar espaloiak, europar erara eraikitako etxeak izan arren, denbora luzea beharko dugu oraindik gure aurreiritzi ezkutuak baztertzeko.

Etxeak berriak, baina aurreiritziak zaharrak.



Eta etxeak berak ere ez dira berriak, eskailerak behintzat ez. Behin baino gehiagotan aipatu izan dugu gure egunkari honetan Peterburgskaia aldean, Lukianov merkataria-aren etxean, ustelduta daudela zurezko eskaileraren eskailera-mailak, eta dagoeneko aspaldi arriskua dutela Afimia Skapidarova, etxe hartan enplegatzen den soldadu baten emaztearentzat, askotan behartzen baita eskailera haietatik igotzera ura edo egur-besadak garraiatuz. Gure iragarpenak egia bihurtu dira azkenean: bart arratseko zortziak eta erdietan, Afimia Skapidarova, soldaduaren emaztea, zopa-ontzi bat zeramala erori, eta hanka hautsi zuen. Ez dakigu Lukianovek oraingoan eskailera hori konponduko ote duen; errusiarra berandu erabaki zalea da, baina errusiar “hurrengoan beharbada” horren biktima ospitalera eraman dute dagoeneko. Orobat, ez gara aspertuko esanez kale-garbitzaileek Viborgskaia-ko aldean zurezko espaloietako zikinkeria garbitzen dutenean ez dituztela zikindu behar handik igarotzen diren ibiltarien oinak, baizik eta pilatxoetan bildu behar dutela zaborra, European botak garbitzeko tokien ondoan egiten duten bezala... eta abar, eta abar”.

–Zer da hau, ordea –esan nuen, Prokhor Savitxi nahiko txunditurik begiraturaz–, zer esan nahi du honek?

–Zer?

–Baina, mesedez, Ivan Matveitx bezalako errukitu ordez, krokodiloak errukitzen dira.

–Eta zer? Animalia batez, are ugaztun batez, ere errukitzen gara. Ez gara Europa? Han asko errukitzen dira krokodiloak. Ji, ji, ji!

Hori esanik, Prokhor Savitx xelebrea berriro murgildu zen bere paperetan eta ez zuen beste hitz bakar bat ere esan.

“Ilea” eta “Orria” patrikan sartu nituen eta, horrez gainera, aurkitu ahal izan nituen “Berriak” eta “Ilea” egunkarien ale zaharrak bildu nituen, arratsaldean Ivan Matveitx distraitzeko, eta arratsalderako denbora luzea geratzen zen arren, behingoz garaiz aurretik atera nintzen bulegotik, Passagean sartu-irten bat egiteko eta, urrutitik bazen ere, han zer gertatzen zen ikusteko eta iritziak eta esaten zirenak entzuteko. Ustez jendetza handi samarra izango zelakoan, longainaren lepoa osorik jaso nuen, lotsa pixka bat nuelako; ez baikaude batere ohituta jendartean ezagutuak izatera. Baina honelako gertaera berezi eta bakan baten aurrean nire sentipen pertsonal prosaikoak adierazteko eskubiderik ez dudala iruditzen zait.